

IRAKASLE PUBLIKOEN MAHAI SEKTORIALAREN AZKEN BERRIAK

**AURREKO OSTIRALEAN, AZAROAK 18, LAKUAN IZANDAKO
MAHAI-BILERAREN ONDOREN, HAINBAT BERRIKUNTZA ABIAN
DAUDEN EPE PROZESUEN INGURUAN**

1. Egiteke dauden EPE prozesuei buruzko informazioa

- Aurreikuspenen arabera, 2023ko maiatzean ezagutuko dira merezimendu-lehiaketaren bidez, plaza bat lortuko duten pertsonak. Karrerako funtzionario izendapena urte bereko urrian edo azaroan egingo da, plazarik gabe geratu diren beste pertsona batzuekin hilabete horietan ematen diren erretiroak bete ahal izateko.
- Gaur egun Hezkuntza Sailak honako data hauek aurreikusten ditu ohiko eta ez baztertzaile EPErako:
 - Lehen Hezkuntza: 2023ko iraila-urria
 - Bigarren Hezkuntza: 2024ko urtarrila-otsaila (aldeztatik aurretik maiatza-ekaina izango zela uste zen)
- Aldaketa "arina" EPE sisteman. Hemendik aurrera gai idatzia, hitz ordua ematen digun egunean irakurri beharko da epaimahaiaren aurrean. Bukaeran, galderak egiteko aukera egongo da.
- Hezkuntza Departamentuak bi EPE motak asteburu berean egitea proposatzen du baina CCOO irakaskuntza ez dator bat ideia horrekin. Oraindik ez dago erabakita egun batean ohiko EPEa egingo den eta hurrengoan ez baztertzailea, edo gaien garapena egun berean egingo den eta ohiko EPEaren kasu praktikoa hurrengo egunean.
- EPE ez baztertzailean, ez da kasu praktikorik egongo inongo espezialitatean.
- Hezkuntza Sailak SMS informatiboak bidaltzeko asmoa du, epaimahaiak merezimenduen baremazioa amaitutakoan.

- 2023ko lekualdatze-lehiaketan, Eusko Jurlaritzak merezimendu-lehiaketan plaza lortu duten pertsonak eta aurretik plaza lortu duten funtzionarioek parte hartzeko asmoa du.

2. Lanbide Heziketako Irakasle teknikoak

- Datozen hilabeteetan deialdia ateratzea espero dute, LHko irakasle teknikoen kidegoko funtzionarioak bigarren hezkuntzako kidegora aldatu ahal izateko.
- Ahaleginak egingo dira unibertsitateko titulaziorik ez duten LHko irakasle teknikoak mantentzeko, nahiz eta merezimendu-lehiaketaren edo baztertzaila ez den EPEaren bidez plaza lortuko ez balute, 2026ra arte gutxienez. Hala ere, baliteke ere aurrerago jarraitzea.

Agur bero bat.

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoko taldekide iraunkorrak

CCOOirakaskuntza